

19. Zkia

2008ko ekaina

ZUZENDARI BARRIA BEGOÑAZPI IKASTOLAN

Nueva directora en Begoñazpi Ikastola

Datorren irailetik aurrera, Nerea Begoña izango da Begoñazpi Ikastolako zuzendaria. Holan onartu dau Ikastolako Eskola Kontseiluak, ikastetxeko jabea dan Gotzaitegiaren proposamena onartuz. Orain arte izan dana, Jose Mari Ziarrusta, Bilboko Gotzaitetik kudeatzaile izendatu dabe, 15 urte bete ondoren Ikastola itzi egiten dau. Bere zeregin barriak, neurri handi baten, Begoñazpiri lotuta mantenduko daualarik.

Nerea Begoña será, a partir de septiembre, la nueva directora de Begoñazpi Ikastola. Así lo ha aprobado el Consejo Escolar de la Ikastola, a propuesta del Obispado de Bilbao, que es el Titular del centro. El director actual, Jose Mari Ziarrusta, después de 15 años en Begoñazpi, se hará cargo de su nuevo trabajo en la gerencia del Obispado, por lo que seguirá vinculado a la Ikastola.



Nerea Begoña 23 urte daroaz lanean Ikastolan eta azken urteetan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikasketa Burua izan da. Aldi honetan zuzendaritza taldeko kide izan da, beraz, egin diran aldaketa guztietan murgilduta egon ez eze hainbat barrikuntza proiektu sustatzen be ibili da.

Nerea Begoña lleva trabajando 23 años en la Ikastola, los últimos años como Jefa de Estudios de Educación Infantil y Primaria. En este tiempo, como miembro del Equipo Directivo, ha estado inmersa en todos los cambios que se han realizado, así como promoviendo numerosos proyectos de innovación.

SUMARIO

- ✚ ZUZENDARI BARRIA BEGOÑAZPI IKASTOLAN
Nueva directora en Begoñazpi Ikastola
- ✚ INDONESIAKO MISIOLARI BATEK BISITATZEN GAITU
Un Misionero de Indonesia visita Begoñazpi
- ✚ PAZKOALDIKO MEZA
Misa de Pascua en familia
- ✚ URKIOLARA URTEERA
Excursión a Urkiola
- ✚ "JOLASEAN HEZITUZ" PROIEKTUA
Proyecto "Educando en el juego"
- ✚ TXISMEAK
- ✚ UMOREA
- ✚ DBH 2. MAILAKO IKASLEAK ENKARTERRIETAN
Alumnos-as de 2.º de E.S.O. en Las Encartaciones
- ✚ DBH 4. MAILA LANBIDEAK EZAGUTZEN
Alumnos-as de 4.º de E.S.O. conociendo los Ciclos Formativos
- ✚ COMENIUS BURDEOSEN
Reunión en Burdeos
- ✚ PALENQUEKO ESKOLA BARRIA
La nueva escuela de Palenque
- ✚ HOLANDARRAK BEGOÑAZPIN
Holandeses-as en Begoñazpi

Nereak, erronka barri hau ilusio handiz hartzen daua eta bere lana ikasle eta familiei begira garatu gura daua diño, bere esanetan. "Gozzaitegiak sustatzen dauan proiektu honetan izateko arrazoia eurak dira". Pozik agertzen da bere esanetan: "irakasle eta ez irakasle talde inplikatu daukat".

Proiektu barriak arrakastaz lideratzea opa deusuegu bioi.

Nerea comenta que asume este nuevo reto "con gran ilusión" y que su trabajo lo desarrollará mirando, siempre, a los alumnos-as y sus familias "porque ellas son nuestra razón de ser, dentro de este proyecto diocesano". También nos dice que está contenta "porque cuenta con un equipo de profesores y personal no docente muy implicado".

Deseamos, a los dos, que lideren con éxito sus nuevos proyectos.

INDONESIAKO MISIOLARI BATEK BISITATZEN GAITU

Un Misionero de Indonesia visita Begoñazpi



Maiatzaren azkeneko astean eta ekainaren lehenengoan Alberto Solaund, menetarra, DBHko gela guztietatik ibili da bere bizipenak guri azaldu eta erakusten. Alberto bost urtez egon da Indonesian, Lantuka herrixkan, misiolari hango eskolatu bako gazteakaz lan egiten. Eskerrik asko Alberto, zure bizitzaren barri emoteagaitik!

A finales de mayo y a principios de junio Alberto Solaud, hermano menesiano, ha pasado por todos los grupos de la E.S.O. compartiendo sus vivencias. Alberto ha pasado los últimos cinco años en Lantuka (Indonesia) como misionero trabajando con jóvenes desescolarizados. ¡Gracias Alberto por compartir tu vida con los demás!

URKIOLARA URTEERA

Excursión a Urkiola



Maiatz aldera, 5. mailako ikasleak naturagaz zuzeneko harremana izateko Urkiolako Parke Naturaleza joan ginan. Bertan, inguruko mendi tontor nagusiak ezagutu eta kataloxen bidez txori mota desbardinak ikusi ahal izan genduzan. Ikastolara itzuli orduko, Santa Poloniako basaleiza ondoan dagoan iturriko ura ahoan hartu eta ohiturak agintzen dauan moduan, hagineta minik ez izateko, bueltaka hasi ginan. Egun zoragarria izan zan.



En mayo, los alumnos-as de 5.º de Primaria tuvimos un contacto directo con la naturaleza, nos acercamos al parque natural de Urkiola. Allí, conocimos los montes más importantes de la zona y observamos mediante catalejos los pájaros autóctonos. En la ermita de Santa Polonia, antes de volver a la Ikastola, y como dice la tradición, para no tener dolor de dientes, llenamos la boca con el agua de la fuente y dimos varias vueltas a la misma. Disfrutamos de un bonito día.



PAZKOALDIKO MEZA

Misa de Pascua en familia

Apirilaren 20an sendi arteko bigarren meza izan genduan Ikastolan. Pazkoaldiaren zentzua gogoratu genduan, itxaropen, bizitza eta konpromisoaren baloreen garrantzia azpimarratuz. Ekintza hau Elizbarrutiko III.EEEn oinarritzen da, gazteenei fedearen transmisioa bultzatzeko asmoz. Jende asko etorri zan, eguraldi eta danon parte-hartze-ari esker, giro aparta izan genduan.

El pasado 20 de abril celebramos la segunda misa familiar de la Ikastola. Recordamos el sentido de la Pascua, subrayando los valores de la esperanza, la vida y el compromiso. Esta actividad se inserta dentro del III PDE, con la intención de impulsar la transmisión de la fe a los más pequeños. A la misa acudió mucha gente, y gracias al tiempo, y a la participación de todos-as, se logró un gran ambiente.



“JOLASEAN HEZITUZ” PROIEKTUA

Gure ikasleentzat hezkuntzarik osoena lortzeko, hezkuntza formala osatzea da gure asmoa, horretarako, hezkuntza ez formalean oinarritutako proiektuak bultzatuz. Hemen proiektu horretariko bat aurkezten dogu, “jolasean hezituz” proiektua. Proiektua goizeko jolasketa saioan burutzeko sortua izan da.

Ezaugarriak:

- Jolas eredu desbardinetara jolasten ikastea.
- Ikasleen parte hartzea haunditzea.
- Ikasleen arteko gatazkak ekiditzea.
- Gatazken konpontze prozedurak lantzea.
- Materiala kudeatzen ikastea.
- Talde lana bultzatzea.

Haur Hezkuntza: Jolasten ikasten ari gara

Eguzki eguneko jolasketa

Ezaugarriak:

- Talde jolasa.
- Kirol jolasak.
- Garapen psikomotorea.

Jolasak:

- Talde jolasak.
- Txingoak.
- Baloi jolasak

Euri eguneko jolasketa

Ezaugarriak:

- Talde jolasa.
- Sormena lantzeko jolasak.
- Psikomotrizitate fina lantzeko jolasak.

Jolasak:

- Eraikuntza txokoa
- Mozorro txokoa
- Marrazketa txokoa

LMH: jolasketa geure ardura da

LMH 5. mailakoak

Metodologia:

- Espazio eta materialaren kudeaketa: Talde bakoitzak aste batez. Talde bakoitzean bost edo sei partaide dagoz. Egunero lan desbardin bat betetzen dabe: ludotekako jolasen banaketa, liburutegiko kudeaketa, baloi eta lurreko jolasen banaketa eta tiketen banaketa.
- Jolas dinamizatzaileak: Espazio horian astero txapelketak antolatzen dira eta 5. mailako ikasleak horretaz arduratzen dira heziketa fisikoko irakasleagaz batera.
- Barikuetan asteko ebaluaketa egiten da eta hurrengo asterako hobekuntza neurriak erabakiten dabez.



Ezaugarriak:

- 5 jolas gune: baloi jolasak, taldeko jolasak, txapelketak, ludoteka eta liburutegia.
- Astero txapelketa antolatuak.
- Jolas mota bakoitzerako material egokia.
- Espazioen txandakako erabilera.
- Euri egunetarako plangintza berezia.

LMH 6. mailakoak

Metodologia:

- Egunero zortzi-bederatzi kideek burutzen dabe lan hau. Taldeak pentatziateteke taldeetatik sortu dira.
- Egon daitekezan gatazkak kudeatzen dabez. Gehienetan euren kabuz bideratzen dabez. Inoiz jolasketa zaintzen dagoan irakaslearen laguntza behar dabe.
- Gatazken larritasunaren arabera, edo jolaslekuan bertan alkarrizketaren bidez

konpontzea lortzen dabe edo bitarkaritze txokora joaten dira.

- BITARKARITZA TXOKOA eraikin barruan dagoan gelatxo bat da. Eroso atonduta dago eta bertan lasaitu, arnas-ariketak egin, berba egin eta jarreraren birziklapena egiten da. Ondoren, arazoa izan daben ikasleek prozesua batzen dauan txantilo bat bete eta konpromezua sinatzen dabe.

- Jolasketa amaitzen danean, bitarkariek ziklo bakoitzari dagokion behaketa orria betetzen dabe. Era honetara, jaso diran gertaera kopurua eta kudeaketaren informazioa lortzen da.

Jolas gune bakoitzean puntu ori bat markaturik dago, bakarrik dagozan umeak hara joan daitez. Bitartekariek lagundu egingo dabez jolas talderen batean sartuz.



Proyecto “Educando en el juego”

Con el objetivo de ofrecer la educación más completa posible, nuestra intención es impulsar proyectos basados en la educación no formal que sean capaces de complementar la educación formal. Aquí os presentamos uno de ellos, el proyecto “educando en el juego”. El proyecto ha sido creado para el recreo de la mañana.

Características:

- Aprender diferentes tipos de juego.
- Impulsar la participación de los alumnos-as.
- Evitar conflictos entre alumnos-as.
- Desarrollar técnicas de resolución de conflictos.
- Aprender a gestionar el material.
- Impulsar el trabajo de grupo.



Educación Infantil: Aprendemos jugando

Patio para los días que no llueve

Características:

- Juego grupal.
- Juegos deportivos.
- Desarrollo psicomotor.

Juegos:

- Juego grupal.
- Txingas.
- Juegos con el balón.

Patio para los días que llueve

Características:

- Juego grupal.
- Juegos para desarrollar la creatividad.
- Juegos para desarrollar la psicomotricidad fina.

Juegos:

- Rincón de construcción.
- Rincón del disfraz.
- Rincón para dibujar.



Alumnos-as de 6.º de Primaria

Metodología:

- El alumnado de 6.º de Educación Primaria realiza la función de mediación en los cinco ámbitos de juego durante los recreos de la mañana.
- Cada día un grupo de ocho o nueve personas organizadas en función de los grupos de pentadidad se encarga de la labor de mediación.
- Ellos se encargan de gestionar los conflictos que pudieran surgir a lo largo del recreo. La mayor parte los solucionan de manera autónoma, son pocos los incidentes en los que solicitan la ayuda del profesor-a que se encuentra cuidando el recreo.

E. Primaria: el patio es nuestra responsabilidad

Alumnos-as de 5.º de Primaria

Metodología:

- Gestión de los espacios y del material: Cada grupo lo hace durante una semana. Cada grupo tiene cinco o seis miembros. Cada día llevan a cabo una tarea diferente: reparto de los juegos de la ludoteca, gestión de la biblioteca, reparto de juegos de suelo y de balón y reparto de ticket.
- Dinamizadores de juego: en el espacio amarillo se organizan campeonatos semanales y los alumnos-as de 5.º, junto al profesor de educación física, se encargan de gestionarlo.
- Los viernes se lleva cabo la evaluación semanal y se deciden las mejoras a implantar la semana siguiente.

Características:

- 5 zonas de juego: patio de balón, juegos de grupo, campeonatos, ludoteca y biblioteca.
- Campeonatos semanales.
- Material adecuado para cada tipo de juego.
- Utilización del espacio de manera rotatoria.
- Planificación especial para días de lluvia.



- Dependiendo del alcance del incidente intervienen y solucionan el conflicto mediante el diálogo en el mismo patio o acuden al espacio de mediación.
- El espacio de mediación es una sala acondicionada para este fin. En este lugar se aborda el asunto con más calma, se toma tiempo para respirar despacio y tranquilizarse, hablar sobre lo ocurrido y proceder al reciclaje de actitudes. A continuación, los alumnos-as protagonistas del incidente rellenan un cuestionario en el que explican lo sucedido y cómo se ha reciclado el problema, estableciendo un compromiso de actuación.

En cada espacio de juegos hay marcado un punto amarillo al que acuden los niños-as que se encuentran solos. Los mediadores-as también se encargan de ayudarles y facilitarles su integración en algún grupo de juego.

TXISMEAK

- † Batirtze Zumajok, BATXILERGOKo irakasleak, lehenengo semea izan dau. Bere izena: Ekain. Zorionak!
- † Eider Aznarrek, DBHko irakasleak, lehenengo semea izan dau, eta Jon izena ipini deutse. Zorionak, Eider!
- † Aitziber Iturbek, HHko andereñoak, alaba bat izan dau, eta bere izena Arrate da. Zorionak, Aitziber!
- † Naiara Bolunburu, DBHko irakaslea, Ekainegaz ezkondu da maiatzaren 17an. Zorionak!



- † Batirtze Zumajo, profesora de Bachillerato, ha dado a luz a su primer hijo. Su nombre: Ekain. ¡Enhorabuena, Batirtze!
- † Eider Aznar, profesora de ESO, ha tenido un hijo al que han llamado Jon. ¡Enhorabuena, Eider!
- † Aitziber Iturbe ha tenido su primera hija, cuyo nombre es Arrate. ¡Zorionak, Aitziber!
- † Naiara Bolunburu, profesora de ESO, se ha casado el 17 de mayo con Ekain. ¡Felicidades, Naiara!

UMOREA



DBH 2. MAILAKO IKASLEAK ENKARTERRIETAN

Alumnos-as de 2.º de E.S.O. en Las Encartaciones

Pasa dan apirilaren 25ean, eguraldia lagun, DBH 2. mailako ikasleek urteera berezia izan eben. Goizean goiz autobusetara igo eta Enkarterri aldera abiatu ziran bisitaldi bi burutzeko. Taldea bitan banatu eta Enkarterrietako museoa bizitatzeari ekin eutsen lehenengo taldeak. Beste talde bien bitartean, Muskizeko “El Pobal” burdinolara joan zan.



Bisitaldia ikusgarria izan zan. Museoan Enkarterrietako Erdi Aroko bizimodua zelangoa izan zan ikusi genduan bitartean, El Pobaleko burdinolan herri meatzari honeek, burdina zelan lantzen eben ikasi eta probatzeko aukera izan genduan.

Egun zoragarria izan zan. Sopuertan bazkaldu eta urteerari amaiera emoteko, barriz be Ikastolarantz abiatu ginan.

El pasado 25 de abril los alumnos-as del segundo curso de la E.S.O. tuvieron una salida especial. El destino fue la zona minera de las Encartaciones. Con un día espléndido, partieron divididos en dos grupos hacia la herrería de **El Pobal** y el museo de las Encartaciones.

La visita resultó genial. En el museo de las Encartaciones pudieron observar el modo de vida de los habitantes de la zona en la Edad Media. Mientras que en la herrería de El Pobal aprendieron y hasta tuvieron ocasión de probar cómo se trabajaba con el metal en las herrerías de la zona minera.



Una vez terminadas las respectivas visitas, se acercaron hasta Sopuerta a comer el picnic. Sobre las 4:30, con la llegada a la Ikastola, se dio por terminada la salida.

DBH 4. MAILA LANBIDEAK EZAGUTZEN

Alumnos-as de 4.º de E.S.O. conocen diferentes Ciclos Formativos



Ikasturte honetan eta Orientazio planaren barruan DBH 4.mailako ikasleek Zulaibar eta Somorrostroko Lanbide ikastegiak bizitatzeko aukera izan dabe. Bertan gaur egun Lanbide Heziketa zelan dagoan egitaratuta eta lanbide arlo desberdinetako Heziketa Zikloak ikusi ahal izan dabez. Egindako bisitak eta ikastolan egindako beste ekintza desberdin batzuek etorkizunera begira hartu beharreko bidea zein dan argitzeko baliogarriak izango diralakoan gagoz.

Este curso escolar y dentro del plan de Orientación, los alumnos-as de 4.º de E.S.O. han tenido la oportunidad de visitar los centros de Formación profesional de Zulaibar y Somorrostro. En ellos han podido conocer como está organizada la Formación profesional hoy en día, así como ver algunos Ciclos de Formación Profesional de las diferentes ramas. Esperamos que estas visitas, junto a otras actividades realizadas dentro de la ikastola, faciliten la decisión que han de tomar de cara a su futuro profesional y personal.



COMENIUS BURDEOSEN

Comenius en Burdeos

Maiatzaren bigarren astean, Comenius proiektuko koordinatzaileen batzarra izan zan Burdeos. Han batzartu ziran Ikastolako ordezkariak Bladeleko Pius X College (Holanda) eta Burdeoseko Lycée Technologique et Professionnel Privé Bel Orme (Frantzia) ikastetxeetako ordezkariak batera.

Batzarraren helburua orain dala hiru urte hasitako proiektuari amaiera emotea izan da eta horretarako landutako gaia: "Gastronomia, bizimoduak eta turismoa". Hiru urte honeetan, DBHko ikasleek hainbat ekintzatan parte hartu dabe: urteerak, errezeta liburua, bertako produktuen hiztegia, Bilboko gastronomia gida, Europa eta Euskal Herriko ohiturak. Aurtengo lana laster izango doze sarean Ikastolako webgunean.

Batzarrean aurtengo lana aurkeztu eta ebaluatu genduan. Horrez gain, beste ikastetxe batzuk ezagutzeko aukera be izan genduan. Dagoeneko lanean hasi gara proiektu barriak martxan jartzeko.



Del 5 al 8 de mayo, se celebró la reunión europea de coordinadores del proyecto Comenius en Burdeos. Allí, se reunieron nuestros representantes de la Ikastola con los centros europeos Pius X College de Bladel (Holanda) y Lycée Technologique et Professionnel Privé Bel Orme de Burdeos (Francia).

Con este encuentro se da por finalizado el proyecto en el que han participado los alumnos de la E.S.O. de la Ikastola a lo largo de tres años. El tema elegido ha sido "La gastronomía, estilos de vida y turismo". Se han realizado todo tipo de actividades: salidas, un libro de recetas, un diccionario de productos vascos, una guía gastronómica de Bilbao, estudio de las antiguas costumbres y de las costumbres europeas. El trabajo de este año se podrá ver próximamente en la web de la Ikastola.

El objetivo de la reunión ha sido presentar el trabajo de este último año y hacer una evaluación del mismo. Además, se tuvo la oportunidad de visitar otros centros de Burdeos y de contactar con otros más para iniciar futuros proyectos.

PALENQUEKO ESKOLA BARRIA

La nueva escuela de Palenque

Pasa dan martxoaren 27an, Palenquen Fatima Eskolarako eraikin barria zabaldu da. Bertan, Palenqueko beharrianak kontuan hartuz, Fatima Eskolako gelak ez ezik, lanbide heziketarako 4 gela, informatika gela, liburutegi eta landa-eskoletako sarean dagozan irakasleentzat gela berezi bat be eraiki da.



Horrela, Palenqueko hezkuntzak orain arte izan ez dauan garrantzia lortu dau, eskolako eta landa eremuko Lehen Hezkuntza integratuz bai Lanbide ezberdinak ikasteko aukera izanez.

Proiektu handi hau aurrera atara ahal izateko, Euskadiko hainbat erakundek parte hartu dabe: Taldeka, Galdakaoko GKEa, Urribarriko Konpartsa, Durangoko Udala eta Parrokia, eta zelan ez, Begonazpi ikastola eta Palenquen lanean dabilzan misiolariak. Guztiei esker, izugarrizko proiektu hau ilusio handiz atara da aurrera.

El pasado día 27 de marzo se ha inaugurado el nuevo edificio que alberga a la escuela Nuestra Señora de Fátima. Además de las aulas de la "escuelita", se han construido 4 aulas destinadas a impartir cursos de formación profesional, así como una biblioteca, una sala de informática y una clase especial en la que se reunirán los profesores/as de la red de escuelas rurales.

De esta manera, la educación en Palenque adquiere una relevancia hasta hace unos años inexistente, en donde se integra educación Primaria del centro y del campo, así como el aprendizaje de diferentes oficios.



Para poder llevar a cabo este gran proyecto, han participado diferentes asociaciones de Euskadi: Taldeka, ONG de Galdakao, la comparsa de Urribarri, el Ayuntamiento y Párrquia de Durango, la Ikastola Begonazpi y los Misioneros que actualmente trabajan en Palenque. Gracias a todos-as, se ha podido llevar a cabo este magnífico proyecto.

HOLANDARRAK BEGOÑAZPIN

Holandeses-as en Begoñazpi

Aurreko hiru hilabeteetan banandutako Geureak aldizkarian aurreratzen geuntsuen moduan, 2. hiru hilabetearen amaiera eta 3.aren hasiera bitarteetan holandar lagunen bisitea euki genduan gure etxeetan. Data ezberdinetan euki doguz: Doetinchemekoak martxoaren 8tik 15era, Silvoldekoak apirilaren 4tik 11ra eta Rotterdamekoak apirilaren 19tik 24ra.

Egun honeetan zehar hiru taldeak kultura bisita eta aisialdiko ekintza ugari egiteko aukera izan eben familia eta irakaleakaz batera.

Gainera, talde bakoitzak aurretiaz planifikatuta eukan bezala, hainbat gairen inguruko proiektua garatzeko aukera be izan eben: kultura eta ohitura euskaldunak, Bilboko eta euren herriko arkitekturaren konparaketa, holandar eta euskaldun gazteen ohiturak,...

Esperientzia oso aberasgarria izan da, horregaitik hurrengo ikasturtea noiz etorri zain gagoz barriro be holango programa bat antolatuzko.

Como adelantábamos en el anterior Geureak, entre finales del 2.º trimestre y principios del 3.º, hemos recibido en nuestras casas a los alumnos holandeses-as con los que hemos realizado el intercambio. Nos han visitado en fechas diferentes: nuestros amigos-as de Doetinchem vinieron del 8 al 15 de marzo; los de Silvolde nos visitaron entre el 4 y el 11 de abril y los de Róterdam visitaron Bilbao desde el 19 hasta el 24 de abril.

Durante estos días, los tres grupos hicieron visitas culturales variadas y actividades de ocio tanto con las familias como con los profesores-as participantes en el proyecto.

También tuvieron la oportunidad de desarrollar un proyecto sobre los temas que cada grupo tenía preestablecidos: la cultura, usos y costumbres euskaldunes, la arquitectura de Bilbao comparada con la de su ciudad, los hábitos de la juventud en Holanda y en Bilbao,...

La experiencia ha sido muy enriquecedora, por lo que estamos deseando que llegue el próximo curso para poder realizar de nuevo un proyecto así.